


Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko martxoaren 14a

*



Etzarri-Aranazko COFESeko ginekologoa, ekografia bat egiten.

LUIS AZANZA

COFES zentroak, desagertzeko bidean

■ Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak egin Emakumearen Osasun Atentziorako Planak polemika piztu du Nafarroako COFES eta Familia Plangintzarako Udal Zentroen artean. Santiago Cerverak, Osasun kontseilariak, plan berriarekin emakume nafarrek nahi duten ginekologoa hautatzeko izanen duten aukera azpimarratu du. COFES zentroak koordinatzen dituen Mari Cruz Landaren hitzetan, ordea, «hori ezinezkoa da egungo baliabideekin». COFESak kezkatuta daude, euren izaera eta urteetan lortutako nortasuna galduko baitute, autonomia

ezezik. Osasun eremu bakoitzeko ospitalearen menpe izanen dira eremu horietan planak aurreikusten dituen Emakumearen Atentziorako Unitateak. Gainera, egun COFES zentroek eskaintzen duten sexu heziketari eta ugalketari buruzko informazio eta orientabide zerbitzua hutsean geldituko litzateke neurri handi batean, Landaren ustez, «teorian planak horren garrantzia azpimarratzen badu ere praktikan arretarik eskaintzen ez diolako». Giro nahasi honetan, Gobernuak eta COFES zentroetako kideek bilera egingen dute astelehenean. ■

Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Otsolako nire paradisura itzuli naiz berriz ere. Oraingo honetan sekulako marranta ekarri dut handik, eta sukarra. Ez naiz damutzen egin izanaz, aspaldiko partez ikasi baitut bakarrik egin ez izanaz damutzen.

Udaberria ez da oraindik heldu Otsolara, zuhaitzak beren biluztasun osoan ez dira haizearen joan-etorrientzako oztopo. Nire txoko horretatik gertu, haize errotak eraiki dituzte arestian, haizearen indarra diru iturri

Otsolako paradisua

egiteko. Haserre ote zegoen horregatik Eolo jainkoa. Ahuldadea nirekin eramanen nuen, beharbada. Egia esan, arropa gutxi nengoen jantzirik. Ez diot haizeari gorroto izpirik gorde, nirea izan zen errua ezpairik gabe. Milaka aldiz entzun izan dut osasunarentzat kaltegarri izan daitekeela izerdiz blai egonik belarean jarrita edo etzanik luze egotea. Baina, hain goxo zetorkidan burundaren hotsa... Leireko Virilaren modura, 500.urte egon ninteke, bera

txoriaren kantua aditzen, ni, adarrotsaren fereka kulunka. Nire barneko gogoetak paperean uzteko parada topatu eta mundua ahanzi nuen. Iruñeko mutikoaren ohorez altxaturiko hilarria bizkarzaintzaile izan nuen. Mikel ezagutzeko aukerarik ez nuen izan; hala ere, adostasuna lortuko genuen garrantzizko puntu batean, Otsola gure paradisua da. Las-ter izanen naiz berriz ere Ireberreko magalean. Badaezpada arröpa gehiago eramanen dut. X

KONTZERTUAK

Larraintzar: Gozategi eta Etzakit taldeek kontzertu-gaupasa egingen dute bihar, hilak 15, herriko pilotalekuan eta gaueko 01:00 etatik aurrera, Korrika kulturaren barnean.

Lesaka: Oskorri taldeak, Kuku-biltxo antzerki taldeak eta Kepa Junkera musikariak lagundurik, kontzertua eskainiko du gaur, hilak 14, gaueko 22:00etatik aitzina, herriko pilotalekuan. Larunbatean kontzertu bera izanen da Tafallako pilotalekuan 19:30etan eta igandean Altsa-suko pilotalekuan 19:30etan.

ERAKUSKETAK

Burlata: Daniel Perez Flamariqueren margoak hilaren 19ra arte ikusgai izanen dira Kultur Etxean. Aretoa astelehenetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara izaten da zabalik, eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara.

HITZALDIAK

Iruñea: Jose Maria Jimeno Jurio historialariak eta Alejandro Arizkun ekonomistak *Nafarroa gure herria* izeneko hitzaldia eskainiko dute gaur, hilak 14, 20:30etan, Arrano elkartearen (Redin kalea, 2).

Barañain: Juan Luis Zabala idazleak *Galduta* bere azken eleberria aurkeztuko du heldu den ostegunean, martxoak 20, arratsaldeko 20:00etan, IKako Sahats euskaltegian. Aurkezpeneren gibeletik 1980ko hamarkadari buruzko diapositibak pantailaratuko ditu Zabalak, eta azkenik, horren ondoren Iruñerriko gaztetxeetako hainbat ordezkari *Euskararen egoera gaztetxeetan* mahai-ingurua egingen dute.

BESTELAKOAK

Zangoza: Korrika kulturalean, pilotari buruzko mahai-ingurua izanen da Kultur Etxean gaur, hilak 14, arratsaldeko 20:00etan. Hizlari izanen dira Oscar Lasa eta Jorge Nagore.

Iruñea: Mauleko Eperra ikastolaren aldeko bazkari herrikoia egingen dute larunbatean, hilak 15, Arrano Beltza elkartearen bertan izanen dira ikastolako zuzendaria, Itxaro Borda idazlea eta Tehenta musika taldea.

Iruñea: Lilaketa emakumeentzako lasterketa herrikoia jokatu da igandean, hilak 16. Lasterketa eguerdiko 12:00etan hasiko da, Gaztelu plazan.

Iruñea: IKako Arturo Kanpion euskaltegiak EGA gaitzazko ikastaroa antolatu du apirilaren zazpitik aurrera. Klaseak egunero 18:00etatik 20:00etara izanen dira. Izena emateko deitu martxoaren 21a baino lehen 22 22 46 telefonora.

na farkronika

Fermin Erbiti

Komunikazioa, inkomunikazioa

Komunikazio eta inkomunikazioaren arteko muga ikusten inoiz baino zailagoa da, noiz eta orain, mezuak jasotzeko ahalmena sekula baino handiagoa denean. Teoriak komunikabideen helburuetako bat hausnarketarako bideak zabaltzea dela badio ere, xede hori erabat ahazturik dago gizarteak dituen arazoak konpontzeko ez omen delako deus pentsatu nahi. Dena argi dago.

Betidanik susmagarriak iruditu zaizkit edozein arazo larriren aurrean den-dena oso argi dutenen iritziak, gehienetan horiek aurreiritzirik iritziarik baino gehiago izaten baitute. Gehiago pertsonaia, talde, elkarte edo partiduren baten emaniko kontsignaren jarraipen itsutik norberak, pentsatzeko ahalmenaz baliatuz, ateratako konklusioetik baino.

Har dezagun gai bat: Euskal Herriko giroa izugarri mikazten ari den biolentzia, esate baterako. Bada, horren diagnostiko osoa ezagutzeko (zergatik, egungo egoera eta behin-betiko soluzioa) aski da Madrila joan, taxi bat hartu eta taxistari hitz egiten uztea, bidaia hasi bezain laster diskurtsoari ekin eta bukatu baino lehen den-dena argituko dizulako. Argi eta garbi.

Hemengo politikoen artean ere anitz dira, ideologia ezberdinetakoak, Madrilgo taxisten argitasuna erakusten dutenak, den-dena argi ikusten dutenak. Sekula santan diskurtsoa botatzean hausnarketarako leku ttikiena ere utziko ez dutenak. Ideologikoki ezberdinak izanagatik ez pentsa hain urrun daudenik. Erreparatu, bertenaz, tonuari, keinuei, aurpegiaren espresioari.

Azken egunetan alpatu galaren inguruan ikusi eta irakurritakoaren artean idazle ospetsu batek biolentziari buruz zioena aukeratu nuke. Hiru hitzez osaturiko mezu sinple eta, aldi berean, sakona iruditu zait: Biolentzia atzerakoa da. Eta mota ezberdinetako biolentzian oinarrituriko diskurtsoak pobreak izateaz gain, ez dute gure mundu ttiki honen giroa baketu ez lasaitu eta ez alaituko. Euskarak unibertsoa behar duen bezala, euskal herritarrok ere giro kutsatu eta itogarria gaitzazteko ahalgintza egin beharko genituzke gure unibertso ttikia noizbait eraikitzen hasi nahi baldin badugu. Bide horretan hasteko, ordea, kontsigna eta aurreiritzi gutiago eta intsumisio handiagoa beharko genuke. Intsumisioa inkomunikazioari eta intsumisioa etsipenari.



asteko pertsonaiak



Benigno Blanco
Espainiako Estatuko Ur Idazkaria

■ Benigno Blanco, Espainiako Estatuko Ur eta Itsasertz Idazkaria, Itoizko urtegiko obrak bisitatzen izan zen joan den asteartean. Itoizko Koordinakundeak Madrilgo Gobernua urtegiaren alde dagoen ala ez zalantzan jarri du azken asteotan. Blancok argi utzi zuen bere gobernuaren jarrera: «Beti egon gara Itoitzen alde, eta galdetu diguten bakoitzean horixe esan dugu». Halaber, batzuentzat harrigarri samarrak izan diren adierazpenak egin zituen: «Obrak berriro hastea ez da legearen kontrakoa. Guk obrak gelditzea, berriz, bai, hori legearen aurkakoa litzateke».



Mikel Costanilla
Osasunako jokalaria

■ Mikel Costanilla iruindarrak debuta egin zuen joan den larunbatean Osasunako lehen taldearekin, gorritxoek Ourenseren aurka jokatu partiduan. Pedro Mari Zabalak igo zuen bigarren taldetik Costanilla, baina berarekin izan ez zuen aukera Miguel Sola entrenatzaile berriak eman zion joan den asteburuan. Gogoz jokatu zuen Iruñeko gazte euskaldunak eta jokaldi politak egin zituen. Gorritxoaren teknika ere kontent agertu zen Costanillak egindako lanarekin partidua amaieran. Gorritxoaren debutan berdinketa baino ez zuen lortu Osasunak, baina, hala ere, pozik zegoela azaldu zuen Costanillak, «debuta beti baita gauza polita».

ahaztu gabe!



IKASTETXE BERRIA

Bera: Heldu den igandean Labiaga ikastolak Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe berriaren irekiera besta egingen du. Goizeko 11:00etan kalejira izanen da: Zizkuitz txaranga Agerra auzoan barrera ibiliko da, Berako Txistulari Taldeak Burga eta Herriko Etxe aldea alaituko du, eta Berako Akordeoi Taldea Illekueta auzoan ariko da. Ordu erdi beranduago, 11:30etan, hiru taldeek bat egingen dute lamotenea aitzineko aparkalekuan, elkarrekin ikastetxe berriraino joateko. Ikastetxe berrian bertan agurra, bedeinkapena, aureskua eta hamaiketakoa izanen da. Bestalde, goiz osoan ikastolako ikasle ohien eta egungo ikasleen hainbat ekintzarekin osaturiko bideo zinta pantailaratuko dute ikastetxe berrian bertan. Beran 1994an egindako Nafarroa Oinez bestan bilduriko dirua izan da ikastetxe berria, eraikitzeke zutaberik finkoena. Labiaga Ikastolaren arabera, «ikastetxe berriak gure ikastolaren hezkuntza proiektua bermatu eta sendotu egingen du».

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrentzako saioa 12.30etan.

Bortziriak

Erausian taldea sortu dute gazteek

Besta eginen dute bihar Beran, euskal taldearen aurkezpen ofiziala ospatzeko



Asteartean agertu zen komunikabideen aurrean Erausian, Bortzirietako taldea.

JON ABRIL

Jon Abril / Bera

IAZKO udan Berako Euskara Batzordearen ekimenez bertako gazte euskaltzaleei bilera baterako deia egin zieten, eta han bildutakoek taldea sortzea erabaki zuten. Berako bestetan egin zuten lehen ekitaldia, baina artean taldeak ez zuen izenik. Udazkenean, taldea Bortziriak osora zabaldu behar zuela erabaki zuten eta ordutik beratarrekin Etxalar eta Igantziko gazteak biltzen dira astero-astero.

Bortzirietako 12 urtetik 24ra bitarteko gazteen % 78,5 euskaldunak dira 1991ko erroldaren arabera. Kopurua ona izanik ere, erabilerak bertzelako egoera islatzen du, eta horrek arduratuta sortu da taldea. Beharrak ez dira berdinak herri guztietan, euskaldun kopurua anitz aldatzen baita herririk herri: Arantzan % 100 dira euskaldunak, Igantzin % 97,6, Etxalarren % 86, Lesakan % 79 eta Beran % 69.

Bortzirietako gazte euskaldunak biltzen dituen Erausian taldea agertu zen komunikabideen aitzinean joan den asteartean. Bortzirietako gazteen artean euskararen erabilera bultzatzea du helburu sortu berri den taldeak, eta horretarako, kontzientziazio kanpaina bati ekingo dio bihartik aitzinera, 'Euskara bihotzean... eta euskara mingainean!' lelopean.

Erabilerari erreparatuz gero, datuak hagitzez kezagarriagoak dira taldekideen ustez, batez ere Bera, Etxalar eta Lesakan. Bortzirietako gazteen erdiek baino ez dute erabiltzen euskara eguneroko bizitzan. Horregatik, kontzientziazio lanari ekin diote lehenik eta behin Erausian taldekoek. Taldearen izenak horixe baitio: denbora luzez solasean aritzea, euskaraz solasean.

Bihar ekingo diote kanpainari taldearen aurkezpen ofizialarekin. Arratsaldeko zazpietatik aitzinera Berako ostatueta trikitipotea antolatu dute, trikitilari, txaranga eta txistulariekin ba-

tera. Ondotik, Hondarribiko Gaztetxekoan antzerkia izanen da kalean, eta arratseko 9:30etan, Ricardo Baroja ikastetxeko jantokian bilduko dira afaltzera.

Kanpainan, Bortzirietako hamar gazte euskaltzaleren irudi eta adierazpenekin egindako kartela zabalduko dute; ostatueta euskal musikarekin batera grabatu dituzten kuinak jarriko dituzte; Igantzi, Etxalar eta Berako gazte guztiei euskara erabiltzeko gomendatuz gutun bana bidali diete, eta euskaraz ez dakitenei ikasteko animatuz. *Ti-pi-Ti-pa* aldizkarian hiru gehigarri kaleratuko dituzte urtean zehar,

horietako lehena aste honetan bertan argitaratuko dute.

Kontzientziazio kanpainaren osagarri gisa hainbat kultur ekitaldi antolatu dituzte hiru herrietan. Martxoaren 23an Living in the Attic taldeak kontzertua eskainiko du Etxalarako herriko ostatuan, gaueko hamaiketan. Igantzin, apirilaren 12an Joxe Ripiau taldeak joko du Biltokian eta Beran Zaldiboboren kontzertua izanen da astebete geroago, apirilaren 19an, Pui ostatuan. Kontzertuez landa, hiru hitzaldi ere antolatu dituzte. Igantzin, apirilaren 22an, Esther Mugeritzak eta Amaia Elosegik *Bi emakume Turkiatik Birmaniara bitzikletaz* diapositiba emanaldia eta hitzaldia eskainiko dute. Maiatzaren 2an Jon Sarasua *Bertso bat nola egiten den* azaltzen ahalginduko da, Etxalarako eskola zaharretan. Beran euskaldunon umoreaz eztabaidatuko dute hainbat umoristak, apirilaren 25ean. X

Lesaka

V. Herri Lasterketa izango da apirilaren 13an

■ *Ibilbide osoa asfaltuan izanen da, maldarik gabe, eta adin guztietako partehartzaileak izanen dira*

Erredakzioa / Iruñea

MALDARIK gabeko lasterketan parte hartzeko aukera izanen da apirilaren 13an Lesakan, Batzoki Elkarteak antolatuta egingo den Lesako V. Herri Lasterketan. Denentzat irekia izanen da lasterketa, dohainik gainera, eta partaide bakoitzak oroigarri bat eskuratuko du (kamiseta eta di-

ploma). Izena lasterketa hasi baino ordu eta erdi lehenago ematen ahal da.

Herriko eta inguruko taberna, banketxe, denda eta enpresek emaniko dirulaguntzari esker antolatu da lasterketa. Herriaren barnean eginen da, eta luzera desberdina izango du mailaren arabera. Goizeko hamarretan hasiko da eta eguerdiko ordu ba-

ta aldera amaitu, proga nagusiarekin. Antolatzaileek prest izanen dituzte lasterkarientzat berotzeko toki bat, aldatzeko gelak eta durtak.

Esan bezala, 10:00etan hasiko da lehen proba, aurre-benjamina. 500 metroko luzera izango du haien ibilbideak, B zirkuituari itzuli bat emanez. Ordu laurden bat beranduago hasiko da ema-

kumezko benjaminen lasterketa, eta hortik aurrera laurdenero hasiko dira probak, gizonezko infantilena amaitu arte. Hori 11:30etan hasiko da, eta bi kilometroko luzera izanen du.

Nafarroako Rural Kutxaren eta Lesakako Udalaren babesu duen lasterketaz informazio gehiago nahi izanez gero, hona bi telefono: 62 75 22 eta 63 79 48. X

Lekunberri

Lekunberriko
Legoa izanen da
igandean

■ *Larraungo
Atletismo Taldeak
antolatu du*

Erredakzioa / Iruñea

LEKUNBERRIKO Legoa izeneko herri lasterketa jokatu-ko da igandean Lekunberrin, Larraungo Atletismo Taldeak antolatuta. Aurtengo, bederatzigarren ekitaldia izanen da, eta antolatzaileek partaidetza zabala espero dute. Parte hartu nahi duenak Ilargi tabernan izanen du izena emateko aukera, lasterketa hasi aurretik.

Ilargi tabernaren ondotik abiatuko da Lekunberriko Lego aurtengo, eguerdiko hamabi eta erdietan. Bertatik Azpirozko gainera joango dira korrikalariak, eta Azpirozko gainetik Zia Etxera, eta Lekunberrira itzuli. Sariak banatuko dituzte parte hartzaileen artean, besteak beste, gizonezkoen arteko onenari, emakumezkoen arteko onenari eta lehenengo larraundarrari emanen zaienak. Gizonen artean irabazten duenak 35.000 pezeta eskuratuko ditu, oroigarria eta txapela. Mutilen artean, gainera, beste bederatz sarri banatuko dituzte.

Emakumeen artean, berriz, 15.000 pezeta, oroigarria eta txapela jasoko ditu irabazleak, eta beste bi sarri banatuko dituzte. Larraundarrak onenak 10.000 pezeta, oroigarria eta txapela jasoko ditu. Larraundarren artean beste bederatz sarri banatuko dituzte. Halaber, lasterketa amaitzen duten guztiei, kamiseta bat oparituko diete antolatzaileek, eta Gau Txori elkartearen hamaiketako emanen diete lasterketa amaitu eta gero.

Baina bada sari hauetaz gain beste sari berezirik ere. 1994. urteko irabazlearen marka hobetzen duenarentzat, hain zuzen, 25.000 pezeta saria prestatu dute antolatzaileek. Urte hartan Andres Perez izan zen garaile eta hamazazpi minutu eta berrogeita hiru segundoko denbora ezarri zuen, ordura arteko marka hobetuz.

Baina Andres Perezena ez da Lekunberriko Legoari lotuta dagoen izen bakarra. Izan ere, Arruizko Txikitoren omenez egiten da Lekunberriko lasterketa. Hura urte askotan izan zen errekoraren jabe, hemezortzi minutu eta berrogeita hamazazpi segundoko denborarekin. 1959. urtean ezarri zuen Arruizko Txikitoak bere marka. Ondoren, herritarren lasterketa berreskuratu eta gero, Diego Garziak denbora hobe ezarri zuen lehenengo ekitaldian, hamazazpi minutu eta berrogeita hamaika segundokoa. Baina marka berria Andres Perez atleta nafarrak hobetu zuen 1994. urteko ekitaldian, egungo errekorra ezarri. X

Emakumearen Plana, polemika iturri

COFES zentroetako langileak Osasun Departamentuaren proiektuaren aurka agertu dira

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuko Plangitza Zerbitzuak osatu du Emakumearen Osasun Atentziorako Plana. Oraindik elkarriketa aldian badago ere, plana nolakoa den jakin bezain pronto haren aurka ateratu dira Nafarroako COFES (Familia Orientabide eta Sexu Heziketarako Zentroak) eta Famili Plangintzarako Udal Zentroak. Hamaika kritika egin dizkiote jada talde horiek Santiago Cervera Osasun kontseilariak aurkeztu planari.

Eduñe Elizondo / Iruñea


EMAKUMEAREN Atentziorako Planak ez ditu ezustean hartu COFESetako kideak, aspaldiko asmoa baita. Egungo Osasun Departamentuak egindakoa, hain zuzen, hirugarren zirraborroa da. Hiruko Gobernuak egin zuen bigarrena, eta UPNko aurreko Gobernuak, berriz, lehen-dabiziko saila. Helburu bera izan dute hirurek: Nafarroako atentzio toke-ginekologikoa berregituratzea.

Horietan, gainera, denak dira ados. Baita COFESetako kideak ere. Mari Cruz Landa da Nafarroako zentroen koordinatzailea, eta azaldu digunez, «gu izan gara arlo honetan antolakuntza berria behar dela, sare bikoitza dagoela eta baliabideak hobeki erabili behar direla erran dugun lehen-dabizikoak». Adostasuna abiapuntuan, beraz. Ezadostasunak eta kontrako iritzia asmoak zehaztean hasi dira, teoria papelean idazten hastean.

Asmoak dagokienez, Santiago Cervera Osasun kontseilariak azaldu digunez, «egungo baliabidekin atentzioa hobetzea eta, horrela, Nafarroako Osasun Legeak ezartzen duen baldintzeta-ko bat betetzea» dira Gobernuaren helburuak, alegia, «emakume bakoitzak bere bizitzako aldi ezberdinetan zaindako duen ginekologoa hautatzeko aukera izatea».

Lurralde antolamendu berria egin nahi du Gobernuak, hainbat herritako osasun etxeetan Emakumearen Atentziorako Unitateak sortuz: bi Lizarrako osasun eremuan, bi Tuterakoan, eta zazpi Iruñekoan. Horietaz gain, Elizondo, Zangoza eta Etxarri-Aranazkoak egonen lirateke, lehenengo Burlatako unitatearen menpe, bigarrena Iruñeko Milagrosa auzoko unitatearen menpe, eta hirugarrena Iruñeko Zabalguneako unitatearen menpe. Gobernuaren proposamenaren arabera, unitate horien artean banatuko lirateke egun dauden

EMAKUMEAREN ATENTZIORAKO UNITATEAK							
unitatea	kokapena	14 urte goragoko emakumeak	baliabideak			besteak	oinarritako eremuak
			Ginekologoa	erizaina	hezitzailea		
Burlata	Burlata O.Z.	15.533	2	2	1	Administraria	Burlata, Atarrabia, Uhartea, Agoltz, Auritz, Ultzama
	Elizondo O.Z.	8.904	1	1	-	-	Elizondo, Lesaka, Doneztebe
Milagrosa	Milagrosa O.Z.	18.772	2	2	1	Administraria	Milagrosa, Azpilagaña, Noain
	Sangoza O.Z.	5.652	1	1	-	-	Zangoza, Izaba, Zaraitzu
Zabalgunea-Alde Zaharra	Zabalgunea O.Z. edo A. Zaharra O.Z.	18.356	2	2	1	Administraria	II. Zabalgunea, Alde Zaharra, Mendillorri
	Etxarri-Aranatz O.Z.	10.316	1	1	-	-	Etxarri-Aranatz, Irurtzun, Altsasu, Leitza
Arrotxapea	Andraize	22.995	3	4	3	Psikiatra, Gizarte langilea, 2 administrari	Txantrea, Arrotxapea, Sanduzelai
Iturruma-Donibane	Cofes Iturruma edo Donibane O.Z.	27.798	4	4	2	2 Psikologo, Gizarte langilea, administrazioa, Zaindaria	Iturruma, Donibane, Berroizar
Ermitagaña	Ermitagaña O.Z.	18.100	2	2	1	Administraria	Ermitagaña, Barañain, Zizur, Gares, Orkoien
Tafalla	Tafalla O.Z.	17.115	2	2	1	Administraria	Tafalla, Artaxona-Zarrakaztelu, Erriberri, Azkoien
Lizarra	Lizarra O.Z.	15.239	2	2	1	Administraria	Lizarra, Allo, Antzin-Ameskoa, Urantzia, Viana, Villatuerta
	Lodosa O.Z. edo S. Adrian O.Z.	9.565	1	1	-	-	Lodosa, San Adrian
Tutera	S. Ana O.Z.	11.159	1,5	1,5	1	Administraria	Tutera
	R. Sofia Ospitala	20.717	2,5	2,5	1	Administraria	Buñuel, Cascante, Cintruénigo, Corella, Valtierra



Azterketa ginekologikoa egin ezezik, sexu heziketa ere lantzen dute COFESetako.

LUIS AZANZA

material eta giza baliabideak. Proposamena ez da inolaz ere COFES zentroen gustukoa izan.

«Orain dugun autonomia galduko dugu» • «Teoria aldetik gauza on asko duen plana da. Planfemendua filosofiko interesgarria du, besteak beste, sexu heziketaren garrantzia eta emakume bakoitzak bere ginekologoa

hautatzeko eskubidea jasotzen baititu. Baina planaren arazoa bigarren zatia da, teoriarik ez dagoela ezerezean gelditzen baita», azpimarratu du Mari Cruz Landak.

COFES zentroek plan berriaren arabera galduko luketen autonomia izan da bertako langileek kezka sortu duten gaitetako bat. Orain artean, Lehen Mailako

Atentziorako barruan egon dira COFESak, baina plan berriaren proiektuak aurrekusten duenez, osasun eremu bakoitzeko ospitalearen menpe geldituko lirateke eremu horietako Emakumearen Atentziorako Unitateak —COFESak barne, orain duten izena galduko lukete eta—. Iruñeko eremukoak Virgen del Camino Ospitaleko Ginekologia eta

Obstetrizia Zerbitzuen menpe geldituko lirateke, Lizarrakoak Garcia Orkoien Ospitalekoen menpe, eta Tuterakoak Reina Sofiakoen menpe.

COFES zentroek, beraz, egun euren artean duten koordinazio sare berezia galduko lukete. «Orain dugun autonomia galduko genuke eta Emakumearen Atentziorako Unitateen artean murgilduta geldituko ginateke. Zer erran nahi du horrek? Beste zerbitzuetako langile birziklatuen artean gutxiengoa izanen ginatekeela». Landak nabarmendu nahi izan duenez, «Virgen del Camino Ospitalean eta ambulatorioan egun deus egin gabe dauden ginekologok» osatuko lituzkete unitate gehienak, «hau da, sexu heziketa lantzeko sosalirak eta formakuntzarik gabeko langileak».

Agustin Otazu Lizarrako COFES zentroko hezitzailea ere kezkatuta agertu da auzi honekin. «Oso arriskutsua da ezagutzen eta maite ez gaituen eta osasunaren, sexu heziketaren eta informazioaren promozioa eta garrantzia aintzakotzat hartzen ez dituen ginekologo baten menpe izatea. Eta ez dugu ahanzi behar kontzientziaragozpen eskubidea izanen duela ginekologok, eta adibidez, DIUrik (Umetoki Barneko Gailua) ez jartzeko erabakia har dezakeela. Emakume bakoitzak bere ginekologoa hautatzeko aukera izanen duela erratea hagitiz polita da, zerbitzua deszentralizatuko dutela erratea hagitiz ongi dago, baina hori guztia egun dauden baliabideekin egitea ezi-

Plan berriarekin
COFESak haserre

Mari Cruz Landa:

«Planaren arazoa bigarren zatia da, teoria guztia ezerezean gelditzen baita praktikan»

nezkoa da», azpimarratu du Otazuk.

Heziketa eta informazio zerbitzua kolokan • «COFESak, berez, desagertu egingen dira», azpimarratu du Mari Cruz Landa zentroen koordinatzaileak. Iruñeko COFES-Andraize eta COFES-Iturrama baino ez lirateke geldituko, erreferentzi zentro modura, «horiek kentzera ausartzen ez direlako, eta horiek gabe, COFES guztiak desagertzen badira, esentzia galduko litzatekeelako», gaineratu du Agustín Otazu Lizarrako hezitzaileak.

Egitura berriarekin, dena den, zail izanen dute egungo COFES zentroek orain arte egin duten lanarekin jarraitzea. Orain bi urte Elizondón zabaldu Haizea zentroaren adibidea da guztien egoeraren argigarri. «Plan berriaren arabera, ginekologoa eta ni bakarrik geldituko ginateke», azaldu digu Isabel Aleman Haizeako erizainak. Zentro hori Burlatako unitatearen menpe geldituko litzateke, eta, Osasun Departamentuaren planak aurreikusten duenez, administraria Elizondoko osasun etxeko bera izanen litzateke, eta eremu osoan hezitzaile bakar batek egingen luke lan. Hau da, pertsona bakar bat Burlata, Atarrabia, Uharte, Agoitz, Auritz, Ultzama, Elizondo, Lesaka eta Donezteberako.

Gauza bera gertatzen da Etxarri. Isabel Pozueta bertako hezitzaileak «atzerapauso izugarritzat» jo du Osasun Departamentuaren asmoa: «Orain hamar ur-



Etxarri-Aranazko COFES zentroko langileak ere kezkatuta agertu dira planarekin.

LUIS AZANZA

teko egoerara itzuliko gara berriro ere». Etxarri-Aranazko zentroa hankamotz geldituko bada, badira Osasun Departamentuaren planak aipatu ere egingen ez dituen beste batzuk, Orkoien Argia eta Berriozarko Laira Familia Plangintzarako Udal Zentroak, eta Antsoaingo Emakumearen Atentziorako Zentroak alegia. «Planak aipatu ere ez ditu egingen, erabat desagertzen dira.

Gure ustez, baliabide publikotzat jo behar dira zentro horiek ere, eta planean sartu», dio Landak.

Santiago Cervera Osasun kontseilariak ez ditu ontzat eman COFESetako kideen hitzak, berak dienez «ez baita egia egun COFES zentroetan eskaintzen ari diren zerbitzuak kenduko ditugula, ez arrazoi ideologikoengatik, ezta laguntza arrazoiengatik ere. Baina erran behar da COFES

zentroak beste garai bateko ereduak direla, eta egun euren funtzioa berriz aztertu beharra dago».

Hobetu eta osatu daitekeela uste duten arren, COFES zentroen ereduak Gobernuak proposatzen duen osoko laguntza eskaintzeko egokia izan daitekeela ziur dira bertako kideak, ordea, «egun eskaintzen dituen zerbitzuei gehituz haurdunaldi, gine-

kologia, menopausia... programak, eta zentro bakoitzeko lan eremua zehaztuz», koordinatzaileak azpimarratu duenez.

COFES zentroetako kideek eta Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuko kideek datoren astelehenean izanen dute desadostasunak leuntzeko aukera, bilerak egingen baitute Plangintza Zerbitzuak osatutako plana eztabaidatzeko.

Emakumeentzat bakarrik

KRITIKA aintz egin zaizkio COFES zentroetatik Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuko Plangintza Zerbitzuak prestatu planari, eta mota askotakoak gainera.

Alpatutako kritikei beste bat gehitu behar zaie, gutxienez, COFESetako langileen ustez, izendapenetik bertatik gaizki planteatuta baitago proiektua. Emakumearen Osasun Atentziorako Plana erratean at gelditzen direlako zenbait talde eta kolektibo.

Horregatik, Ugalketa eta Sexu Osasun Plan berri bat egin behar dela uste dute COFESetako kideek, horren barnean biztanleria osoaren laguntza, heziketa eta aurrezaintza programak guztiak sartu ahal izateko. «Ez dugu emakumeentzat bakarrik den plan bat nahi; gizonezko

eta emakumezkoentzat izanen den plana, plan unibertsala nahi dugu», azpimarratu du Agustín Otazu Lizarrako COFES zentroko hezitzaileak.

Planak ezartzen duen banaketak arrisku ideologiko nabarmena du Otazuren ustez, «berriro ere emakumearen esku uzten baita famili plangintzari buruzko gaien ardura guztia. Urteak eta urteak eman ditugu lanean, esanez bikoteak hartu behar dituela sexu harremanei buruzko erabakiak, eta plan honek, berriro ere, gizona erabaki horietatik guztietatik at utzi du, emakumearen esku utzi du erantzukizun guztia».

Hutsegite larria da hori Lizarrako hezitzailearen hitzetan, «gizonek ere zalantzak badituztelako, eta eurek ere behar dutelako informazioa. Badituzte arazoak,

eta euren sexualitatea ere eztabaidatu behar dute. Baina plan honekin non geldituko litzateke hori guztia? Non geldituko litzateke orain artean gazteekin, gurasoekin eta beste taldeekin egin dugun lan guztia?».

Gizonak, oro har, plan horretatik kanpo gelditzen badira, gauza bera gertatzen da gazteekin. «Emakumearen Planak zentzua izan zuen sortu zenean, baina sei urte igaro dira eta ezin dugu orduko egoeran geldirik gelditu. Egundak, muga asko ezartzen ahal ditu plan honek, zentroaren atean Emakumearen Atentziorako Unitatea dioen kartela jartzen badugu at utziko ditugulako mutil gazteak, gurasoak...», gaineratu du Mari Cruz Landa COFES zentroetako koordinatzaileak.

Osasun Departamen-

tuko planak aurreikusten dituen Emakumearen Atentziorako Unitateen kokapenak ere kezkatzen ditu COFESetako kideak, Agustín Otazuk azaldu digunez. Planaren arabera, hain zuzen, herrietako osasun zentroak dira unitate horiek jasotzeko egokienak. Otazu, baina, ez dago ados. «Esperientziak erakutsi digu sexualitatearekin zerikusirik duen atentzioak intimitate, errespetu eta konfidentzialtasuna eskatzen duela, eta hori hobeki eskaini daiteke osasun etxetik at dagoen zentro batean. Asko kostatu lortu dugu orain dugun prestijioa, kalitatezko atentzioari, jorkaera pertsonalari eta errespetuari esker. Hori guztia non geldituko da orain, osasun etxean sartzen bagaituzte?», dio Agustín Otazu hezitzaileak. X



Mari Cruz Landa, COFES zentroetako koordinatzailea, Iturramakoan.

LUIS AZANZA

Xanti Begiristain

Euskal Herria Korrika

■ AEK-ko Korrika badator. Hori dela eta makina bat pertsona aterako gara gutxi barru lasterka egitera euskararen alde, geografia osoko kale eta errepideetara.

Bai, jaun-andreak, nik uste dut euskararen mesedetan egin behar dugula geure eskuetan dagoen guztia. Une bakoitzean komeni dena; hau da, batzuetan astiro eta patxadaz jokatu beharko dugu gure hizkuntzaren alde, eta beste batzuetan aldiz, arin, trostan, arrapaladan eta baita ziztu bizian ere. Horrelaxe aritu beharko dugu egoeraren arabera, Lingua Navarrorum delakoa aurrera bultzatzeko eta zapalkuntza guztietatik askatzeko.

Eta hori guztia zergatik? Beno ba, arrazoi ugari eman genitzake, baina nik garrantzitsu bakar batzuk baino ez ditut aipatuko. Begira ezazue. Lehenik eta behin, elkarrekin komunikatzeko balio duen hizkuntza bizi bat delako, nahiz eta hizkuntza hau gutxitua izan. Komunikatzeko balio duenez gero, era berean esan daiteke betetzen dituela gizarte honek dituen eginkizun linguistiko guztiak. Gero, esan genezake euskara dela Europako hizkuntzarik zaharrena, edota zaharretariko bat bai behintzat, inolako zantzarik gabe. Aitorren hizkuntza ez dugu latin, greko, alemaniera, ingeles eta abarren alaba. Egia esan, ez dakigu ongi non, noiz eta nola jaio zen, eta bat eta beste.

Zio eta ezaugarri gehiago ere eman ge-

nezake gure mintzairari buruz, baina gaurkoz nahikoa delakoan nago. Dena den, gaurko idazki honetan, funtsezko beste zenbait ideia ere transmititu nahi nituzte, alegia, oso garrantzitsuak dela gure laguntza ekonomikoa ematea Alfabetatzeko Euskalduntze Koordinakundeari, kilometroak eta beste gauzaki asko erosiz, edota diru ekarpenak eginez eta mobilizazioak antolatuz.

Baina, kultura eta hizkuntza guztiak teoriarik baloratu eta errespetatu egiten diren garai hauetan, nik uste dut inolaz ere ezin dugula baztertu eta mesprezatu geure-geurea den kultura eta hizkuntza, euskara alegia, besteak beste.

Horrexegatik guztiarengatik, gorago aipaturiko ekintza oro inondik inora ere baztertu gabe, iruditzen zait Korrika 10.ari egundoko mesedea egingen geniokeela, denok geure mailan honako antzeko gauza batzuk egingo bagenitu: esate baterako, euskaraz batere ez dakitenak ikasten hasiko balira, pixka bat dakitenek ikasten jarraituko balute, ongi samar menperatzen dutenak hobetzen saiatuko balira, alfabetatu gabe daudenek alfabetatzen eginahalak egingen balituzte, eta azkenik, ongi alfabetaturik daudenak, euskaraz idazten, irakurtzen, hitz egiten eta bizitzen ahaleginduko balira.

Ea ba zer bultzada ematen diogun aurten Korrikari! ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Donapaualeko
Mintzaldiak eta
Minvielle labestarra

■ Aratz eta maratz ihardoki zitzaigun Asisko Urmeneta bere azkeneko *Sutopia*-n, gori borborka dirakion lapiko undatsetik, hainbat ostegunetan Iruñetik abian Amikuzez gairi astalkatu bidazteiz. Hartaz, eta eni dagokidenez, Thermidorren burua poxi bat bederen xuritzeko, derradan Jutsiko aruna igatzearen arrazoia etzela ene sena deskosterra, estrataren sendotze lanak baizik, eta guziarekin, *Jutsi la nuit* hark bere xarma bazuen... nire begiko. Besteren artean, orai badakit nundik datorren Jusue Erriberako abizen arrunta. Ibañetaz beheiti kurri ijito ezkontza baino luzeago, bihurtune erpin ororen betzal zoroak, sabela binperrez eta oka ozpindua ezpain ertzetan, baina halaz ere Berunagatarak beti aitzina gogotsu —*si se unde el mundo que se unda, los Plomez siempre pa'lante*— hots—. Hartan ikasi genuen barta zer den, dukegunerako, eta Garaziko trinketea, «zintzurra pattar ta sabela ordoki», aferak gasnaki lerrokatu. Esan liteke otsail honetako bulta laburrean nafarren arteko jumelage basatia bastitu berri dela. Asisko kapitain pilotu brankan lemazain fierra. Lehenbiziko hitzaldia. Davant euskaltzain elestari nasaiak eskeini zigun eta hartan Martin Minvielle labestarrak aditu lehenbiziko ezpalak jostatu genituen. Eta hara hor Xantxo anaia lamien orraziarekin opari datorkigula: Minvielleren euskal idazkia ematea ez ezik, berauk etxez etxe itaunketan jaso eli batez apaindu berritegia bet betan ere eman zigun. Tipilgorritu digu Minvielle, eta gaurkoa ahalbidetu. Biba zu Xantxo! Esker anitz on Juan Jose.

Bihoz beraz Minviellez dakizkigun urriak. Martin Minvielle Lartigau Soulie Etxeberri 1886.eko abuztuaren 7an sortu zen Baxenafarroko Labets herrian. Gurasoak Ameriketara egonak ziren eta sobera aberastuak jinak ere bai. Ikasketak Larresoroko apezgaitegian egin zituen, alabaina fede kontuek etzuten gehixegi atsankatzen, eta zalui Parisen izan genuen. Hiri hartan miriku ihardun zuen 1937. urtera arte. Hantxe ezkondu ere egin zen, 1929.ean, Renée-Marie Gonyotekin, eta fede aldetiko kristaldi ederrak astindu bide zion, eskuarki hil arte altaratu zuena, izan ere zendu baino lehenagoko uneetan honela baitzioen: «Guri seminarioan ez dauzkute dohatxasunak erakutsi, eta hoietan dago hain xuxen ebangelioaren mina». Esan urtean sorterrira itzuli zen. Labetsen mediku lanak kitorik egiten zizkien herritarrei, eta pentsa bedi bere etxeokan garaiko azken aurrerakuntzak egon bazeudela, berbarako inguruetan radioa erabili zuen lehenbizikoetako sendagilea bagenuen Minvielle, halarik ere bere burua bozketan aurkeztu zuenean etzuen lorpen haundirik erdietsi. Zernahi ere Minvielle bazen izan aipatu beharreko beste hainbat ekimenen bultzatzailea: menderatzen zituen hamaika hitzaldi ogutzi zituen igande arratsaldetan, Donapaualeko klinikaren sortzea ere neurri batean zor zaio, eta 14 urtetik gorakoentzako laborantza ikastaldiak ere ematen zituen. Hamar bat urte Euskalerriratu zela bete zituen, 1948.ean zendu zen.

Ez dakigu seguru beste zerbait argitara eman zuen orduko izparringi zein aldizkarietan, baina ezagun ditugunak honako bi hauek dira: *Petit traité de Puériculture en Basque* eta *Une race en danger: l'alcoolisme en Pays Basque*. Bigarren hau 1941.eko uztaila-abuztuaren emaniko hitzaldia dugu, eta Donapaulen ageri zen, E. Aubinen etxean. Lehenbizikoa berriz 1939.ean karrikaratu zuen, Baionako La Presse moldiztegia, eta izenburua frantsesez zekarren arren, kirioak euskara hutsez onduak zituen: *Haurren arthazeaz, Labetseko ama familiakoeri Minvielle medikuak eman mintzaldiak*. Hiru dira idazki honen atal nagusiak: 'Haur sorthu berria edo lehen adina', 'Bigarren adina: 1-7 urthetarat' eta 'Haurren eritasunez'. Aintzin solasean guretako interesgarriak badira: «Eskual Herrirat itzuli naizenean, hain nintzen alegia nun kasik uste bainuen ez nuela hemen gauza onik balzen aurkhituko. Eta hargatik laster bati oharu niz, ez baitut batere gustukoa: eta hura da, haurrak ez dituzuela behar litazkenak. Uste nuen hemen ikhus, kampañetan bizi diren guziak bezalako haur gothor, azkar, gorri eder batzu eta sobera ardura aurkhitzen ditut direla tchar, mehatch eta kolore zuri, begitarte eta gorputza min itsusi batzuez betheak (...) Haurrek ez daukate ahulezia edo tcharrerla hori jitetik, baina arthatzeko moldetik. Gero oharu niz eglazki osasun onaren kontrako molde guztietan alchatuak direla (...) Nihaur handitu niz trochakordetan tink tink ezarria, ohako triste baten zolan, ohako hori etheko gamba ilhunenean, zokhorik beltzenean baitzaukaten». Dena dela argi utzi nahi izan zuen bere ardura haurren hazteari ziohakiola mugaturik: «Ez da nehor gure ohidura chaharrak nik baino gehiago maite dituenik, bainap ohidura ez da sail berean egoitea eta iduri zaut kaltekor denaren kambjatzea edo ezetzatzea eginbide dugula». ■



Rocka mugaetxean

Berako Gutariko Bat eta Zup taldeek sari bana eskuratu berri dute Teruelen

Gutariko Bat eta Zup taldeak Beran dau-den talde ugarietako bi di-ra. Lehenak Parisko Portobello Bones taldearekin batera single bat atera berri du biniloan. Bigarrenak maketa bat. Teruelen saria eskuratu dute biek berriki. Ez da kasualitate hutsa, azken aldian Beran sortu diren taldeei entseatzeko Udalak utzitako lokalek badute-eta eraginik horretan.

Jon Abril / Bera



Zup eta Gutariko Bat taldeetako hainbat kide, lotsaz-edo paretari begira.

JON ABRIL

«Euskal Herriko talde gehientsuenen arazoa da entseatzeko lekurik ez izatea, baina hori Beran konpondurik dago»

IRAIL bukaeratik daude bi taldeok Polziak Lizuniagan erabiltzen zuen mugaetxean. Mugarik gabeko Europa abian jarri zenean, etxea hutsik geratu zen eta Udalak erabilera egokia aurkitu zion. Bertan eta aurretik Musika Eskolan entseiatzen eman dituzten orduak eman dute fruiturik, saria eskuratu baitute Zup eta Gutariko Bat taldeek joan den larunbatean Teruelen egin Pop-Rock lehiaketan. Aragoiko taldeentzat aipatu lehiaketan gonbidatu bereziak izan ziren beratarak. Gutariko Batek lehen saria eskuratu zuen, eta Zupek hirugarrena.

Lizuniagara allegatu aurretik, Berako Musika Eskolako bi ganbaratan egiten zituzten entseguak herriko lau taldek: Borrokan, Ero Menak eta aipaturiko Zup eta Gutariko Bat. Beste talde batek, Noise Holek, igerilekuko ostaturia erabiltzen zuen neguan.

Baina Musika Eskola handia izan arren, gela berriak behar zituzten. Soluzioa laster aurkitu zuten arduradunek: rock taldeak kalean utzi, euren erabilera musikari. Istilu handirik gabe, herriko bost taldeek konponbidea eskatu zioten Udalari, eta, hainbat bileraren ondoren, irtenbidea gauzatu zen. Hasieran taldeetako kideak ez ziren gustura agertu lokal berriarekin: herriko urrutiegia dago (bost bat kilometro), eta herriatik bidaltzen zituzten itxura hartu zioten kontuari. Gainera, instrumentu eta tresnerientzat ez zen leku segurua. Hori ere konponbidea aurkitu zioten: leihotetan hesiak ezarri ziren eta alarma jarri.

Askatasun

handiagoa • Oraindik herriatik bidaltzen irudipena duten arren, pozik daude lokal berriekin. «Hemen askatasun handiagoa dugu, ordutegia guk nahi duguna izan daitekeelako. Lehen, astean bost ordu baino ez genituen, klaseak zeudelako, bizilagunei trabarik ez egiteko... Alde horretatik, anitz irabazi dugu», adierazi du Maizelek. Zupeko bateria joleak. Gainera, musika jotzeko eta entseatzeko leku gehiago dute.

duten musika talde guztiei lekua eskaini behar dietela. «Hori ez da arazoa, musika jo nahi duen orok bere txokoa izanen duelako», aipatu dute musikariek.

Talde guztientzat, hala ere, al-daketa ez da onerako izan. Borrokan taldeko kide guztiak gazteak dira, 16 urtekoak. Kotxerik ez izateak entseatzera joateko oztopo zaie, eta kide baten etxeko garajearen aritzen dira egun.

Euskal Herriko talde gehientsuenen arazoa entseatzeko lokalik ez edukitzea da, eta horixe da Beran konpondurik dagoena. «Musika egiten jarraitu ahal izateko bideak ezartzen dituzte eta luzaroan horrek eragina du», azpimarratu du Mikelek, Gutariko Bateko gitarra joleak. Eta hori egia dela erakusteko, aski da Be-

ran dagoen musikari kopuruari erreparatzea. Aipaturiko bost rock taldeez gain, Bera eta Le-sakako hainbat lagunek osatzen dituzten 16 Jazz Eroak taldea eta Zizkuitz txaranga daude, Larra-kaitz txaranga, Fundizion fusio taldea eta musika eskolako tresna ezberdinetako taldeak. Ezin ahaztu, Euskal Herriko hainbat taldetan Berako musikari franko dabilela: Tapia eta Leturia Banden, Bizkar Hezurran, 21 Japonesen, Xabier Montoiarekin, Zaldibobon, Kristina eta Amaia-rekin...

Lagun talde gisa hasi ziren proiektuak, bide ezberdinetatik jarraitu arren, leku berera iritsi dira: Lizuniagako mugaetxera, Berako musikarien harrobi eta elkargunera.



Beran azken aldian sortu diren taldeen artean beste bat da 16 Jazz Eroak.

JON ABRIL

Joseba Sarrionandia eta freskagarriak

HERRIKO gazteengandik arreta berezirik jasotzen ez dutela uste duten arren, hainbat laguni esker erroturiko egitasmoak dira Gutariko Bat eta Zup musika taldeak. Baina batez ere euren egindako lanari esker errotu dira, zalantzarik gabe.

Zup taldea hiru lagunek sortu zuten orain dela bost bat urte. Josebak, Maizelek eta Andonik sortu zuten, eta aldaketa batzuen ondoren, laukote izatera iragan ziren. Egun, Josebak (gitarra), Maizelek (bateria), Inigo (baxua) eta Pettik (ahotsa) osatzen dute taldea.

Zu euren lehen maketa da, eta lau kantu bildu dituzte bertan. Lana euren ekoiztu dute osoki, Maikel grabazio teknikoa baita. Taldearen izena freskagarri ezagun baten irakurketa okerretik atera zen eta behin baino gehiagotan aldatzeko gogoia izan duten arren, orain arteko bideak pisu gehiegi du.

Taldeakide gehienak musikari lotuak bizi dira, baita Zupetik kanpo ere: Maikel musikoen teknikoa da, (Gozategi, Tapia eta Leturia...), Inigo eta Joseba 16 Jazz Eroak eta Xabier Montoiarekin dabilta, Inigo ere Zizkuitz txarangarekin.

Maketaren aurkezpena Korrika Kulturaleko ekintzen artean egingo dute, Irunen, martxoaren 21ean.

Gutariko bat Joseba Sarrionandiak idatzitako poema bat da. Hortik atera zuen izena boskote horrek. Mikel Zubietak, Mikel Etxegarai eta Xabier Iturria betidanik elkarrekin ibili dira ikasten.

Bakoitzak tresna bat jotzen zuelako elkartu eta baxujole baten bila hasi ziren. Mikel Zubietaren anaia bikiak baxua ikasteari ekin eta taldea osatu zuten. Ahots baten bila abiatu zirenean Xabier Erki-zia, bikien lehengusua, hartu zuten kantari.

Hasieratik ibili dira talde onen inguruan: Ama Say, Bizkar Hezurra, Dut... Portobello Bones Tourskoekin (Frantzia) Bermeon elkartu ziren kontzertu batean eta singlea grabatzeko aukera eskaini zieten. Frantziarrek euskaraz abestu dute eta hiru kantu biltzen dira, horietako bi beratarrenak.

Orain, Europako hainbat taldeekin errekopilazio lan bat grabatuko dute, eta udazkenean, beharbada, diskoa grabatzeko aukera izango dute.

Inongo estilotan definitzen ez diren arren, zerikusi gutxi dute Sarrionandiarren literaturarekin eta freskagarrieta-ko iragarkietako musikarekin, baina badute zerbait lotzen dituen: freskoak dira eta anitzak.

Hori bai, ez dute Berako soinurik sortu, ezta sortuko ere, moda guztien aurka baitaudel.

* ◆ Juanma Hernandez ◆ LANEko kidea

«Bide berriak zabaldu behar dira»

Lur-Adiskideen Nafar Elkartek (LANE) hamargarren urteurrena ospatu zuen joan den astean. Erakusketa, hitzaldiak, kontzertuak eta beste prestatu zituzten horretarako. Hamar urte hauetako historia biltzen duen aldizkari berezia ere, aurki izanen da kalean.

Edurne Elizondo / Iruñea

LANE-K kale Nagusiko 21.ean du egoitza, beste hainbat talderekin batera. Eta bertan, arratsaldero, Juanma Hernandez egoten da, iruindarren kezka jaso eta euren zalantzak argitzeko asmoz. Bertan aurkitu genuen guk ere, eta hamar urte bete berri dituen bere taldeari buruz mintzatu ginen berarekin.

■ **Nolakoa izan zen LANEren hasiera, lehenengo urratsak?**

LANE, berez, orain dela hamar urte sortu zen, baina gure ama, gure sustraia, lehenagokoa den ANAN taldea izan zen, Natur-Adiskideen Nafar Elkartea. Talde hau orain hamabost bat urte sortu zen, eta denborak aurrera egin ahala, hainbat talde sortu ziren bertatik, horien artean LANE bera, Gorosti, eta beste hainbat.

■ **Urte hauetako zuen jarduerari buruz zer azpimarratuko zenuke?**

Oro har, talde honetan bi alor landu eta lantzen ditugu. Alde batetik, salaketa, Gaur egun, Itoizko urtegiaren proiektua da adibiderik argiena, eragin handiena duena gure lurraldean. Eta hori salatu beharra dago. Baina ez da gauza bakarra, gure eguneroko bizitzan hamaila gauza baitago salatzen, nahiz eta hainbeste oihartzunik ez izan. Eta beste alorra, kontzientziazio lana da, zabaltze kanpainak deituz ditugunak. Gure ustez, kontzientziazioa oso garrantzitsua da, salaketarekin batera, gure ekimenak aurrera ateratzeko. Ez dugu ahaztu behar, bakoitzak



Juanma Hernandez, LANE talde ekologistaren egoitzan.

LUIS AZANZA

bere etxean, gauza asko egin dezakeela ingurugiroaren alde.

■ **LANE sortu zenetik hamar urte igaro ondoren, ekologiaren bideak eta tresnak asko aldatu direla uste al duzu?**

Egia erran, orain hamar urte erabiltzen genituen bideak gaur egun ere erabiltzen ditugu. Beti, modu baketsuan saiatzen gara gure ideiak zabaltzen, eta modu askotako ekintzen bidez.

■ **Itoitzekiko Elkartasuna taldeko kideek urtegiako kableak moztu zituzten orain urtebete inguru. Urrats berria izan zen ekintza hura bide horien artean?**

Bai. Zalantzarik gabe erran behar da ekintza hura oso positiboa izan zela, ia urtebete geldirik izan baitira lanak. Gertatu zenean, ez-

tabaida piztu zuen ekintza honek, ekintza berria zelako hemengo mugimendu ekologistaren barruan, ekintza erabat zuzena. Ordura arteko jardueran urrats berria izan zen.

■ **Aurrerantzean jarraitu beharreko bidea hori dela uste duzu?**

Nik uste dut bide berriak zabaldu behar direla, eta hori bat izan daiteke. Baina, dena den, mota guztietako gauzak eta ekimenak beharrezkoak direla uste dut, ingurugiro arazoak, finean, anitzak baitira Euskal Herrian, eta baita mundu osoan ere. Jendearen partehartzea, ordea, nahiko urria da oraindik.

■ **Kontzientziatzeko lan handia egiten duzuen arren, beraz, jendeak ez du konpromezurik hartu nahi?**

Hala da. Kontzientziatioari dagokionez, aurrera egin dugu, baina horrek ez du islarik partailetzan. Gero eta jende gutxiago dago talde ekologistetan, eta LANE ez da salbuespena, mugimendu

ekologista osoan gertatzen ari den gauza baita, izurritea.

■ **Mugimendu ekologistak atzera egin duela erranen zenuke, beraz?**

Bai, hala da, hau ez da inondik inora gure garairik ohena. Eta jendeak ulertu behar du guk ez dugula erabateko konpromezua eskatzen. Jakin behar dute modu askotan parte har daitekeela, modu ugari daudela lan egiteko. Nik, adibidez, txoriak eta, oro har, animaliak atsegin nituelako nahi nuen talde ekologista batean sartu, igandeetan txangoak egiteko, natura ezagutzeko. Ez nien ingurugiroak dituen arazoei gehiegi erreparatu hasieran. Baina taldean sartu eta poliki-poliki arazo ekologikoak zeintzuk ziren konturatzen hasi nintzen, eta oso baliagarria izan da niretzat. Gainera, ez dugu ahaztu behar gure gizarteak halako jokaeren beharra duela.

■ **Itoizko urtegia aipatu duzu lehen. Talde ekologista guztien arazo nagusia da egun?**

s o s l a i a

Juanma Hernandez 27 urteko iruindarrak LANE talde ekologistak kale nagusiko 21.ean duen egoitzan ematen ditu arratsaldeak. «Administraria naizenez, ni aukeratu ninduten lan honetarako», azaltzen du. Egoitza berria orain urtebete erosi aurretik, Merced kalean ziren LANEko kideak.

«Txoriak eta, oro har, animaliak atsegin» zitu-elako sartu zen LANEN, orain bost urte Juanma Hernandez. Eta oso pozik dagoela azpimarratu du. «Mota askotako jendea topatu dut, oso aberasgarria da». Geroztik, hamaila kanpainak, manifestazio eta ekintzatan parte hartu du.

Hamargarren urteurrena dela eta hainbat ekintza egin zituen LANEk joan den astean. Aurki, gainera, aldizkari berezia kaleratuko dute taldeko kideak. Bertan, hamar urte hauetako historia jaso dute.

Itoizko urtegiaren afera oso garrantzitsua da. Denborak aurrera egiten du eta hor jarraitzen du munstroak. Lan eta lan egiten dugu bere aurka, baina hor jarraitzen du. Baina ez dugu itxaropena galduko eta aurrera jarraituko dugu. Itoizko urtegiari buruz gauza asko erran dugu jada, ingurugiroan duen eragin izugarria, ustelkeria, denetarik ikusi da. Baina hemengo mandatarien burugogortasuna dela eta hor jarraitzen du.

■ **Hamar urte hauetako lanak, dena den, emanen zizuen kontent egoteko arrazoirik ere...**

Bai, noski. Errausteko planten afera dago, adibidez. Nafarroan bi daude, nahiko txikiak, eta azketan daude. Eta hori poztekoa da. Birziklaiaari dagokionez ere, nahiko aurreratu dugu. Iurrmendiko Mankomunitatea, hain zuzen, esperientziarik onenetakoa da estatu osoan. Eta jendeak gogoz hartzen du parte. Berriro ere, herritarrek aurrea hartu die gobernuei. x

BEKARIO!

Zaldi Eroa

